Kostaldeko Done Jakue Bidea

Donostia San Sebastián → Orio → ETAPA Zarautz → Getaria → Zumaia → Deba

Ibilbidearen mapa | Ibilbidearen profila | Ibilbidearen deskribapena | Erromesentzako aterpea | Ostatuak | Jatetxeak | Turismo bulegoa

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA · TURISMO GIPUZKOA · COSTA VASCA KOSTALDEA EUSKADI

ETAPA

Zarautz → Getaria

HASIERA



ETAPA

Zarautz → Getaria



Zarautz

Zarautz - Getaria

→ Zarautz eta Getaria arteko etapak bi aukera eskaintzen ditu: lehenak jatorrizko bideari jarraitzen dio, itsasertzeko amildegietatik aparte samar dagoen bide zaharrari, eremu garaiko baserri eta ermitak lotzen dituenari; bigarrenak, berriz, itsasoaren ertzetik bertatik jarraitzen du, itsasertzeko N-634 errepidearen ondoan egokitutako pasealeku berritik, XIX. mende amaierako ingeniaritza-obra handi horretatik, alegia.

Santa Barbarako bidea

Bide hau Zarauzko alde zaharretik abiatzen da, parrokiaren eta Kanpantorrearen ondo-ondotik, eta Aldapetako maldan gora egiten du; galtzada honek lotzen zituen garai batean Zarautz eta Getaria. Hasieran oso bide maldatsua da, eta Santa Barbara mendira igotzen da, mendebalderanzko noranzkoan. Galtzadaren zati hau Gipuzkoako kostako ibilbidean aurki daitezkeenen artean ondoen kontserbatutakoen artean dago. Galtzada berehala urruntzen da hiri-inguru netik, eta Vista Alegre parkea inguratu ondoren, Zarauzko txakolin-mahasti zaharrenen artetik jarraitzen du. Txakolina, izan ere, Zarautz eta Getaria artean hedatzen den lurraldeko nekazaritza-produktu nagusietako bat da. Txakolinaren ekoizpenari buruzko lehen erreferentziek Erdi Aroraino garamatzate, mahasgintza Gipuzkoako itsasbazter osora hedatzen zen garaira, hain zuen. Txakolina inguruko biztanleen ohiko kontsumorako ekoizteaz gain, XVI. mendetik aurrera soberakinei beste erabilera bat ematen ere hasi ziren, baleak ehizatzera eta bakailaoa arrantzatzera Ternuko eta Artikoko itsasoetara joaten ziren arrantza-ontzien hornikuntzarako erabiltzen hasi baitziren. Edari honen berezitasunen artean, aipagarria da marinelen artean eskorbutoa saihesteko zuen gaitasuna. Halere, denborarekin, txakolinaren ekoizpen-eremua murrizten joan zen pixkanaka, eta, XX. menderako, itsasertzeko sektore txiki batek baino ez zuen jarraitzen edari honen laborantzan eta ekoizpenean. Zorionez, txakolinaren ekoizpena berriro indartu da gaur egun, eta produktuaren kalitatean oinarritutako hedapen-fase berri bati ekin dio.

Santa Barbara

Santa Barbara

Galtzadaren maldaren goialdera iritsita, gailurrera gerturatuko gaituen saihesbide txikia hartuko dugu, eta Santa Barbarako baserri eta ermitarekin egingo dugu topo. Eraikuntza honen kokalekua bikaina da benetan, ondoko amildegi handiaren gainetik airetiko ikusmira paregabea baitago: Zarauzko itsasertz guztiaz gain, Euskal Herriko itsasertzaren ekialdeko zatia ere ikus daiteke, Baionara arte. Santa Barbara, ekaitzen eta tximisten aurkako santu babeslea, oso miretsia izan zen beti herritarren artean, eta herriko patroietako bat izatera ere iritsi zen. Mirespen eta debozio horien ondorioz, arrantzale zarauztarrek, mendeetan zehar, harrapatzen zuten balea bakoitzeko opari bat ekartzen zioten santuari. Santa Barbarako ermita bera Zarauzko arrantzaleen ekimenez eraiki zen XVIII. mendearen hastapenetan.

Getaria

Getaria

Atzean utzi dugun bideari helduko diogu berriro ere, eta beste galtzada-zati batzuetatik jarraituko dugu aurrera, pixkanaka gorantz eginez. Laster, aldapatxo baten eta bihurgune txiki baten ondoren, ikusmira berri bat zabalduko zaigu begien aurrean: mendebalderantz begiratuz gero, Getariako ikuspegiaz gozatu ahal izango dugu; herria dagoeneko muinoa batetik, eta ondoan daukan San Anton mendia bestetik, garai batean uharte izandakoa, XV. mendean portua eraikitzeko lanen ondoren lehorrari lotuta gelditu zen lur-zatia.

Getaria

Getaria

Bideak aldaparik gabe egiten du aurrera baserri zaharren artetik. Horietako batzuek, Garro baserriak adibidez, Erdi Aroko eraikuntza-elementu interesgarriak gordetzen dituzte. Ibilbide osoan zehar itsasoaren ikuspegi liluragarriez gozatuko dugu, eta txakolin-sailak nahiz edari bikain hau egiten duten bodega edo txakolindegiak ikusiko ditugu nonahi. Azkenik, bidea asfalto-pista bilakatuko da, ondoren errepide, eta bertatik beherantz jarraituko dugu Getariaren herrigunera iritsi arte.

Getariaren herrigune historikoa itsasbazterrean kokatua dago, amildegien gainean eraikia eta San Anton mendiak babestua. Zarauzko jauregian eta ondoko San Salvador parrokian azken urteotan egindako arkeologia-indusketek erakutsi dutenez, Getariaren populatzea erromatarren garaian hasi zen, gerora itsasoko jardueretan arituko zen komunitate bat bertan kokatu zenean. Geroago, Goi Erdi Aroan, komunitate horretako biztanleek balearen ehizari ekin zioten, eta harrezkero jarduera hura izan zen beren ekonomiaren oinarrietako bat, herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren bultzatzaile nagusia.

Gaztelako errege Alfontso VIII.ak 1209an sortutako herri hau Gipuzkoako portu nagusietako bat izan zen mendeetan zehar.

Udaletxea - Elkano

Kale Nagusia

Herrigunea San Salvador parrokia zoragarriaren inguruan dago eraikia; parrokia hau, Gipuzkoako arkitektura gotikoaren altxor ederra, katedral baten moduan altxatzen da hirigunearen barruan, herria osatzen duen egituran harrigarriki txertatuta. Eliza honetan elkartu zen Gipuzkoako Ermandadea 1397. urtean, eta bilkura historiko hura izango zen gerora sortuko ziren Gipuzkoako erakundeen hazia. Bilkura hartan hirurogeita hamar legeko legegintza-egitura bat onartu zen, probintzia lurralde bezala garatzeko balioko zuena. Getariak makina bat gerra, sute eta arpilatze pairatu du, eta gertakari horiek ikaragarri asaldatu dute herriaren historia. Hala eta guztiz ere, historia aberats horrek Getariaren une gorenen adibide ugari utzi dizkigu; Erdi Aroko kale estuetan, esate baterako, hainbat jauregi eta dorretxe begizta daitezke, Getariak Erdi Aroan izan zuen botere ekonomiko eta komertzialaren isla.

Getaria makina bat itsasgizon ospetsuren sehaska izan da. Nabigatzaile getariarren artean aipagarriena Juan Sebastian Elkano dugu. Fernando Magallanesen espedizioko bost itsasontzietako bateko maisu gisa itsasoratu zen, eta zeharkaldi ikaragarri gogor baten ondoren, Filipinetako artxipelagora iristea lortu zuen 1521. urtean. Filipinetan, Magallanes bertakoak kristautzen eta bere aldeko kazikeen nagusitasuna sendotzen ahalegindu zen, baina hain modu sutsuan lotu zitzaion zeregin hari, non azkenik tribu matxino batekiko liskarretan hil baitzen. Elkanok hartu zuen laister espedizioaren buruzagitza, eta Moluka uharteetan itsasontzia espeziaz kargatu ondoren, Iberiar penintsulara itzultzea erabaki zuen, betiere mendebalderantz nabigatuz, lurrari bira osoa emateko lehen ahaleginari ekinez. Hiru urtez oinaze ikaragarriak pairatuz nabigatu ondoren, Victoria naoak bere epopeia burutzea lortu zuen, baina eskifaian 18 kide baizik ez ziren geratzen lortutakoaren berri emateko. Karlos I.a Enperadoreak *“Primus circumdedisti me”* ezkutua eman zion bere balentriagatik: *“zirkumnabigatu ninduen lehenengoa izan zinen”*. 1526an abentura berrien bila itsasoratu zen, baina azkenik Ozeano Bare urrunean zendu zen. Herentzia ederra utzi zuen halere: bere debozioaren erakusgarri gisa, Getariako eliza eta ermita ia guztiei egin zien dohaintzaren bat, baita herriko ospitaleari ere. Gipuzkoako kostako Santiago bidean aurkitzen diren beste hainbat ermita eta elizari ere egin zizkien dohaintzak Elkanok, esate baterako Irungo Junkaleko Andre Mariari, Hondarribiko Guadalupeko Andre Mariari, Zarauzko San Pelaiori edo Itziarko Andre Mariari; Santiagoko katedralari ere sei dukateko dohaintza eskaini zion.

Alde Zaharra

Getariako kaia

Getariako ermita guztien artean aipamen berezia merezi du San Sebastianenak. Herrerieta auzoan zegoen kokatua, hiriko sarreretako batean. Ermita ospitale-funtzioak betetzen zituen etxe handi baten parte zen, eta ospitalezain bat ere bazuen. 1836. urtean, baina, sute handi batek kiskali zuen ermita, baita Herrerieta auzo osoa ere, eta erabat suntsituta geratu zen. Hiriko gainerako sarrera eta irteeretan ere ermitak zeuden garai hartan, baina zoritxarrez haiek ere ez dute gaur arte zutik iraun.

Getariako biztanle askok itsasoari lotuta jarraitzen dute gaur egun, eta herri honek Gipuzkoako eta Kantauri itsasoko arrantzale-portu garrantzitsuenetakoa izaten jarraitzen du. Getariako jatetxeetan zerbitzatzen duten arrain bikaina dastatuz, tradizio honetaz gozatzeko aukera paregabea daukagu.

Getariako kaia

Itsasargia

Zarautz - Getaria

Zarautz - Getaria

Itsasertzeko bidea

Berriki egokitutako itsasertzeko paseoa, N-634 errepidearen ondoan hegal moduan eraikia, oso ibilbide erraz eta atsegina da, bi herriguneen artean inolako desnibelik ez duena. Hori dela eta, zarauztarren eta getariarren ohiko paseoa da, eta jende ugari ibiltzen da urteko edozein sasoitan. Pasealekuaren aldameneko N-634 errepidea, itsasoaren gainean harresi moduan altxatzen dena, XIX. mendearen bigarren erdiko ingeniaritza ausartaren adibide paregabea da. Alabaina, denboraleak gogor jotzen duenean, ibilbide hau ez da itsasoaren oldarretatik salbu gelditzen, eta olatuak errepidearen harresi garaiak harramazkatzen saiatzen dira, noizean behin beren zaurien markak utziz.

HASIERA

GETARIA

Ostatuak

Jatetxeak

TURISMO BULEGOA

Aldamar parkea, 2
20808 Getaria
Tel.: 943 140 957
E-maila: turismogetaria@euskalnet.net
www.getaria.net

GETARIA